



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO

AÑO
2.020
URTEA

4. ORDENANTZA FISKALA

ORDENANZA FISCAL Nº 4

ONDASUN HIGIEZINEN

GAINAKO ZERGA

IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



**4. ORDENANTZA FISKALA ONDASUN
HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK
FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUEN
ERREGULATZAILEA.**

**ORDENANZA FISCAL Nº 4 REGULADORA DE LOS
ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR
LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES
INMUEBLES.**

ARGIBIDEA

I. KAPITULUA: XEDAËN OROKORRAK	5
1. Artikulua.- .	5
II. KAPITULUA: KARGA-TASA	5
2. Artikulua.- .	5
III. KAPITULUA: ZERGA-OINARRIA ETA KUOTAK	5
3. Artikulua.- .	5
IV. KAPITULUA: ZERGALDIA ETA SORTZAPENA	6
4. Artikulua.- .	6
V. KAPITULUA: KUDEATZEKO ARAUAK	6
5. Artikulua.- .	6
6. Artikulua.- .	6
7. Artikulua.- .	7
8. Artikulua.- .	7
VI. KAPITULUA: SALBUESPENAK, HOBARIAK ETA ERREKARGUAK	8
9. Artikulua.- Salbuespenak.	8
10. Artikulua.- Hobariak.	8
11. Artikulua.- Errekarguak.	12
AMAIERAKO XEDAPENA	13

INDICE

CAPÍTULO I: DISPOSICIONES GENERALES
Artículo 1.- .
CAPÍTULO II: TIPOS DE GRAVAMEN
Artículo 2.- .
CAPÍTULO III : BASE IMPONIBLE Y CUOTAS
Artículo 3.- .
CAPÍTULO IV: PERIODO IMPOSITIVO Y DEVENGO
Artículo 4.- .
CAPÍTULO V: NORMAS DE GESTION
Artículo 5.- .
Artículo 6.- .
Artículo 7.- .
Artículo 8.- .
CAPÍTULO VI: EXENCIONES, BONIFICACIONES Y RECARGOS
Artículo 9.- Exenciones.
Artículo 10.- Bonificaciones.
Artículo 11.- Recargos.
DISPOSICIÓN FINAL



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO



**4. ORDENANTZA FISKALA ONDASUN
HIGIEZINEI BURUZKO ZERGAREN KUOTAK
FINKATZEKO FUNTSEZKO ELEMENTUEN
ERREGULATZAILEA.**

I. KAPITULUA: XEDAËN OROKORRAK

1. Artikulua.- .

Udal honek, Ondasun Higiezin gaineko Zergaren 12/1989 Foru-Arau uztailaren 5ekoak 14.3 artikuluan ematen dion ahalmena erabiliz, hurrengo artikuluan ezarritako baldintzetan finkatzen du Zerga honen karga-tasa.

II. KAPITULUA: KARGA-TASA

2. Artikulua.- .

1. - Hiri-lurreko Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikatuko zaion karga-tasa:

- Zoru industrial edo tertziarioan % 0,5453
- Orokorrari % 0,1918

2. - Landa-lurreko Ondasun Higiezin gaineko Zergari aplikatuko zaion karga-tasa % 1,0436 (e)koa da.

III. KAPITULUA: ZERGA-OINARRIA ETA KUOTAK

3. Artikulua.- .

1. - Hiri-lurreko Ondasunei aplikatutako Ondasun Higiezin gaineko Zergaren Oinarri Zergatzekoa, ondasun horien katastroko balioa izango da.

2. - Landa-lurreko Ondasunei aplikakizun zaizkien Ondasun Higiezin gaineko Zergaren Oinarri Zergatzekoa, katastroko balio erregelamenduz onetsia izango da.

3. - Zerga honen zehaztapena ateratzen da aurreko ataletan adierazitako zerga-oinarriari aplikatuz Ordenantza honetako 2. artikuluan bakoitzari ezarritako karga-tasak.

**ORDENANZA FISCAL Nº 4 REGULADORA DE LOS
ELEMENTOS ESENCIALES PARA DETERMINAR
LAS CUOTAS DEL IMPUESTO SOBRE BIENES
INMUEBLES.**

CAPÍTULO I: DISPOSICIONES GENERALES

Artículo 1.- .

Este Ayuntamiento, haciendo uso de la autorización que confiere el art. 14.3 de la Norma Foral 12/1.989, de 5 de Julio, del Impuesto sobre Bienes Inmuebles, fija el tipo de gravamen de este Impuesto en los términos que se establecen en el artículo siguiente.

CAPÍTULO II: TIPOS DE GRAVAMEN

Artículo 2.- .

1. -El Tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Urbana es de:

- Suelo Industrial o terciario: 0,5453%
- General: 0,1918%

2. - El tipo de gravamen aplicable al Impuesto sobre Bienes Inmuebles de naturaleza Rústica es de 1,0436%.

CAPÍTULO III : BASE IMPONIBLE Y CUOTAS

Artículo 3.- .

1. - La Base Imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicado a los Bienes de naturaleza urbana, estará constituida por su valor catastral.

2. - La Base Imponible del Impuesto sobre Bienes Inmuebles aplicable a los Bienes de naturaleza Rústica estará constituida por el valor catastral reglamentariamente aprobado.

3. - La determinación de la cuota de este Impuesto se obtiene aplicando a las Bases Imponibles expresadas en los apartados anteriores los tipos de gravamen respectivos, fijados en el art. 2º de esta Ordenanza.

IV. KAPITULUA: ZERGALDIA ETA SORTZAPENA

4. Artikulua.- .

1. - Zerga kobratzeko eskubidea zerga-aldiaren lehenbiziko egunean sortuko da. Epe hori bat dator berezko urtearekin.
2. - Ondasun kargatuetan gertatzen diren aldaketa fisikoek, ekonomikoek edo juridikoek, gertatzen diren zerga-aldiaren hurrengoan izango dute eragina.

V. KAPITULUA: KUDEATZEKO ARAUAK

5. Artikulua.- .

1. - Zerga kudeatuko da abiaburutzat hartuz haren errolda, zeina osatuko baitute Lasarte-Oria dauden ondasun hgiezinak jasotzen dituzten zentsoek, subjektu pasiboek eta katastroko balioak, bereiziaz landa-lurrekoak eta hiri-lurrekoak.
2. - Erroldak bere baitan jasoko ditu azken urtean ondasunetan gertatu diren aldaketa fisikoak, ekonomikoak eta juridikoak.

6. Artikulua.- .

Ondasun higiezinaren titularrek, katastroan inskribatzera obligatuak baitira, dagozkien deklarazioak aurkeztu beharko dituzte 2 hilabeteko epean, honela zenbatuz:

- a) Noiz eta baitira eraikuntza berriengatik alta ematea edo ondasun higiezinetan gertatutako aldaketa fisikoengatik bestelako deklarazioak egitea, obrak amaitzen diren egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.
- b) Ekonomiazko aldaketagatik egindako deklarazioetarako, erabileraren edo norakoaren aldatze horretarako administrazioak baimena eraukitzen dion egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.
- c) Arlo juridikoko aldaketetarako, aldaketa hori formalizatzen duen eskritura edo, hala badagokio, dokumentu egiten den egunaren biharamunetik zenbatzen hasita.

CAPÍTULO IV: PERIODO IMPOSITIVO Y DEVENGO

Artículo 4.- .

1. - El impuesto se devengará el primer día del período impositivo. Este coincide con el año natural.
2. - Las variaciones de orden físico, económico o jurídico que se produzcan en los bienes gravados tendrán efectividad en el período impositivo siguiente a aquél en que tuvieron lugar.

CAPÍTULO V: NORMAS DE GESTION

Artículo 5.- .

1. - El impuesto se gestiona a partir del Padrón del mismo, que estará constituido por censos comprensivos de los bienes inmuebles sitios en Lasarte-Oria, sujetos pasivos y valor catastral, separadamente para los de naturaleza rústica y urbana.
2. - El Padrón recogerá las variaciones de orden físico, económico y jurídico que se hubieran producido en los bienes durante el último año natural.

Artículo 6.- .

Los titulares de los bienes inmuebles, obligados a inscripción en el Catastro, deberán presentar las correspondientes declaraciones en el plazo de 2 meses:

- a) Tratándose de altas por nuevas construcciones u otras declaraciones por variaciones de orden físico en los bienes inmuebles, contados a partir del día siguiente a la fecha de terminación de las obras.
- b) Para las declaraciones por variación de naturaleza económica, contados a partir del día siguiente al otorgamiento de la autorización administrativa de la modificación de uso o destino de que se trate.
- c) Para las variaciones de orden jurídico, contados a partir del día siguiente a la fecha de la escritura o, en su caso, documento en que se formalice la variación de que se trate.

7. Artikulua.- .

1. - Aurreko artikuluan aipaturiko deklarazioak ez aurkeztea, edo esleituriko epeen barruan ez egitea, tributu-arauen urratze arruntzat joko da.

2.- Tributu-arauen urratze hori era honetara zigortuko da:

- a) 6 euroko isuna atzeraturiko urte bakoitzeko, hurrengo testuan ezarritako kasuan izan ezik.

Arau-haustea errepikatuz gero, 30 euroko isuna.

- b) Ez aurkezteak, bere kabuz ez betetzearen zertzalada larrigarriarekin batera gertatzen denean, 60 euroko isuna izango du.

Ez aurkezte hori errepikatuz gero, 150 euroko isuna.

- c) Noiz eta, deklarazioa ez aurkeztearen ondorioz, tributu-kuota ezin baita zehaztu dagokion likidazioaren edo kitantzaren bitartez, horretarako akzioaren aginduz, 300(e)tik 900(e)ra euroko isuna ezarriko zaio, Udaleko Ogasunari sorrarazten dion kaltea kontuan hartuz.

8. Artikulua.- .

1. - Zergaren urteko kuoten ordainketa maiatzaren 15etik ekainaren 30era bitartekoa izango da edo hurrengo lanegunera bitartean egingo da.

2. - Udaleko Administrazioak dagozkion erreziboak egingo ditu, eta denak batera jakinaraziko ditu, Gipuzkoako Antzinako Lurraldeko Kobrantzen Erregelamenduak xedatzen duenari jarraituz.

3. - Alta berriengatik diren kuotak, edo titularitatea aldatzetik ez datozen aldakuntza fisiko, ekonomiko edo juridikoen ondorioz direnak, banan-banan jakinaraziko den likidazio baten bidez igorriko dira.

Artículo 7.- .

1.- La falta de presentación de las declaraciones mencionadas en el artículo anterior, o el no efectuarlas dentro de los plazos señalados, será calificada como infracción tributaria simple.

2. - Dicha infracción tributaria será sancionada de la siguiente forma:

- a) Multa de 6 euros por cada año de retraso, excepto lo dispuesto en la siguiente letra.

En caso de comisión repetida, 30 euros.

- b) La falta de presentación, cuando concurra la circunstancia agravante de falta de cumplimiento espontáneo, 60 euros.

En caso de comisión repetida, 150 euros.

- c) Cuando como consecuencia de la falta de presentación de la declaración, no se pueda determinar la cuota tributaria mediante la correspondiente liquidación o recibo, por prescripción de la acción para ello, será impuesta multa de 300 a 900 euros, en atención al perjuicio económico ocasionado a la Hacienda Municipal.

Artículo 8.- .

1. - El pago de las cuotas anuales del impuesto se realizará del 15 de mayo al 30 de junio o inmediato hábil posterior.

2. - La Administración Municipal emitirá los recibos correspondientes, que serán notificados de forma colectiva conforme dispone el Reglamento de Recaudación del Territorio histórico de Gipuzkoa.

3. - Las cuotas por nuevas altas o a consecuencia de alteraciones físicas, económicas o jurídicas no derivadas de cambios de titularidad, serán giradas mediante liquidación notificada individualmente.

VI. KAPITULUA: SALBUESPENAK, HOBARIAK ETA ERREKARGUAK

9. Artikulua.- Salbuespenak.

Zerga honetatik salbuetsirik daude titularitate publikoko osasun zentroak; zentro horien berezko xedeak betetzeko zuzenean baliatzen badira.

10. Artikulua.- Hobariak.

1. Izaera orokorrez, hobaria eskaera egin ondorengo ekitalditik aurrera hasten da aplikatzen, eta ez du atzerako eraginik. Dena den, onura fiskala likidazioa irmoa izan baino lehen eskatzen denean, onura emango da baldin eta hobaria jasotzeko baldintzak zerga sortzen den egunean betetzen badira.

Hobaria interesatuek eskatu beharko dute beraien ezaugarriak adieraziz.

Udal Administrazioak hobaria onartu ondoren, agiri bat luzatuko du eman dela frogatzeko.

Udalak edozein unetan errekeritu ahalko du berriro akredita dadila hobariaren kontzesioa funtsatzen duen dokumentazioa, halako moduan non, errekerimendu hori konplitzen ez bada, kontzesioa automatikoki geratuko baita baliogabetua.

2. Ondorengo hobariak ezartzen dira:

- a) Zergaren kuota osoaren %50eko hobaria, baldin eta ondasun higiezinak obra berrien nahiz haiekin parekatzekoak diren zaharberritzekoan urbanizazio, eraikuntza eta sustapen immobiliarioko enpresek egiten duten jardueraren xede badira eta haien ibilgetuaren artean ageri ez badira.

Aipatutako ondasun higiezin horiek Babes Ofizialeko Etxebizitzan kalifikazioa dutenean, zergaren kuota osoaren %90eko hobaria izango dute.

CAPÍTULO VI: EXENCIONES, BONIFICACIONES Y RECARGOS

Artículo 9.- Exenciones.

Están exentos de este impuesto los bienes de que sean titulares los centros sanitarios de titularidad pública, siempre que los mismos estén directamente afectados al cumplimiento de los fines específicos de los referidos centros.

Artículo 10.- Bonificaciones.

1. Con carácter general, el efecto de la concesión de las bonificaciones empieza a partir del ejercicio siguiente a la fecha de la solicitud y no puede tener carácter retroactivo. No obstante, cuando el beneficio fiscal se solicite antes de que la liquidación sea firme, se concederá si en la fecha del devengo del tributo concurren los requisitos exigidos para su disfrute.

Los interesados deberán instar su concesión indicando las características de la misma.

Declarada ésta por la Administración Municipal, se expedirá un documento que acredite su concesión.

El Ayuntamiento en cualquier momento podrá requerir que se vuelva a acreditar la documentación que fundamenta la concesión de la bonificación de manera que si no se cumplimenta dicho requerimiento la concesión quedará automáticamente revocada.

2. Se establecen las siguientes bonificaciones:

- a) El 50% de la cuota íntegra del Impuesto para los inmuebles que constituyan el objeto de la actividad de las empresas de urbanización, construcción y promoción inmobiliaria tanto de obra nueva como de rehabilitación equiparable a ésta, y no figuren entre los bienes de su inmovilizado.

Cuando dichos inmuebles tengan la calificación de Viviendas de Protección oficial la bonificación alcanzará el 90% de la cuota íntegra del Impuesto.

Hobari hau aplikatzeko epea obrak hasi ondorengo zergalditik horiek amaitu ondorengo zergaldira bitartekoa izango da, eta betiere denbora horretan urbanizazioko edo eraikuntzako lanak benetan egiten badira. Epe horrek ezingo ditu inoiz hiru zergaldi gainditu.

- b) Kuota osoaren %50eko hobaria babes ofizialeko etxebizitza berrietarako eta, dela proiektuan dela erregistroan, haiei lotuta dauden garaje eta trastelekuetarako, beti ere behin betiko kalifikazioa eman ondoren.

Hobari hau aplikatzeko epea 10 urtekoa izango da, behin betiko kalifikazioa ematen den zergaldiaren hurrengotik kontatzen hasita.

- c) Familia ugariak: Zergaren kuota osoaren gaineko hobari bat ezartzen da familia ugarien titularren izaera duten subjektu pasiboen alde.

c.1) Hobariaren portzentajea

- * 3 seme-alabako familia ugariak → OHZren kuotaren %50eko hobaria.
- * 4 seme-alabako kategoría orokorreko familia ugariak → OHZren kuotaren %70eko hobaria.
- * kategoría bereziko familia ugariak → OHZren kuotaren %90eko hobaria.

Kategoría determinatzerakoan, minusbalotasunen bat edo lanerako ezintasunen bat aitortua duten seme-alabak bi balira bezala kontatuko dira.

El plazo de aplicación de esta bonificación comprenderá desde el período impositivo siguiente a aquel en que se inicien las obras hasta el posterior a la terminación de las mismas, siempre que durante ese tiempo se realicen obras de urbanización o construcción efectiva, y sin que, en ningún caso, pueda exceder de tres períodos impositivos.

- b) Una bonificación del 50% de la cuota íntegra del impuesto a las viviendas de protección oficial de nueva construcción, así como a los garajes y trasteros vinculados a las mismas, en proyecto y registralmente, una vez que se otorgue la calificación definitiva.

El plazo de aplicación de esta bonificación será de 10 años desde el período impositivo siguiente a aquel en que se otorgue la calificación definitiva.

- c) Familias numerosas: Se establece una bonificación sobre la cuota íntegra del Impuesto a favor de aquellos sujetos pasivos que ostenten la condición de titulares de familia numerosa.

c.1) Porcentaje de la bonificación

- * Familias con 3 hijos → Bonificación del 50% de la cuota del IBI.
- * Familias con 4 hijos clasificadas de categoría general → Bonificación del 70% de la cuota del IBI.
- * Familias clasificadas de categoría especial → Bonificación del 90% de la cuota del IBI.

A efectos de determinación de la categoría, los hijos que tengan reconocida alguna minusvalía o incapacidad para el trabajo, serán computados como si de dos hijos se tratase.

c.2) Zergazko hobariaren mugak:

Baldin katastroko balioa 186.568,20 euro baino gehiagokoa bada, ez da hobarirako eskubiderik izango. Muga hori urtero automatikoki aktualizatuko da, dagokion urtealdiko hiri-lurreko ondasun immobiliarioen balio katastralen multzorako onetsitako aktualizazio-indizearen arabera.

Hobaria bizitokiari eta haren eranskinei bakarrik aplikatuko zaie. Ondorio horietarako, bizitokiak garaje edo trasteleku bat ez badauka eranskin gisa, halakotzat joko da bizitokiaren eraikin berean dagoen garaje bat edo trasteleku bat, kasua hala bada.

Ondasun higiezin bati ohiko bizilekuaren izaera emateko, ezinbesteko baldintza izango da ondasun immobiliariorik horretan erroldaturik egotea zerga hobaria izateko eskubidea duten unitate familiarreko kide guztiak.

Subjektu pasiboaren erroldatzea nahikoa izango da seme-alaben babesa eta zaintza partekatua adosten den dibortzio kasuetan, zein arautua egongo baita seme-alaben egoitza-alternantziaren bitartez, gurasoetako bakoitzaren helbidean, baldin eta gainerako eskakizunak betetzen badira.

Kasu horretan, hobaria aplikatuko da baldin eta:

- Familia ugariko titularrak, gainerako eskakizunak betetzen dituen Lasarte-Oriako bi etxebizitzetako bakar baten subjektu pasiboak badira –batera edo banaka-, horri.
- Bi etxebizitzetako subjektu pasiboak badira –batera edo banaka- eta biek betetzen badituzte gainerako eskakizunak, biei erdibana.

c.3) Hobariaz baliatzeko baldintza formalak.

c.2) Límites del beneficio tributario:

Si el valor catastral de la vivienda excede de 186.568,20 euros, no se tendrá derecho a bonificación. Este límite será actualizado automáticamente todos los años en razón del índice de actualización aprobado para el conjunto de los valores catastrales de los bienes inmuebles de naturaleza urbana del ejercicio que corresponda.

La aplicación del beneficio sólo alcanzará a la vivienda con sus anejos. A estos efectos, cuando la vivienda no cuente como anejo de garaje y/o de trastero, se considerarán como tales a un garaje y/o a un trastero -en su caso- situados en el mismo inmueble que la vivienda.

Para otorgar a un inmueble el carácter de residencia habitual será requisito imprescindible que en dicho inmueble figuren empadronados todos los miembros de la unidad familiar con derecho al beneficio tributario.

El empadronamiento del sujeto pasivo será suficiente en los supuestos de divorcio en los que se acuerde la guarda y custodia compartida respecto de los hijos, regulado a través de una alternancia de la residencia de los hijos en el domicilio respectivo de cada progenitor, siempre que se cumplan los demás requisitos.

En este caso la bonificación se aplicará:

- Si los titulares de la familia numerosa son sujetos pasivos –conjunta o separadamente- de una sola de las 2 viviendas en Lasarte-Oria que cumpla los demás requisitos, a ésta.
- Si son sujetos pasivos –conjunta o separadamente- de las 2 viviendas, y ambas cumplen el resto de requisitos, se repartirá por mitades entre las 2.

c.3) Requisitos formales para el disfrute de la bonificación.

* Aplikaziozko zerga-periodoari dagokion obligazioa sortutako egunean familia ugariaren izaera aitortua daukaten hirilurreko OHZren subjektu pasiboek honako dokumentazio hau aurkeztu beharko dute:

- Interesdunaren eskabidea, zeinetan identifikatuko baita nork eskatzen duen (izen-abizenak, NA) eta zein den hobari-eskaeraren xedeko ondasun immobiliaria.
- Gipuzkoako Diputazio Foralak emandako familia ugariko titulu ofizialaren fotokopia konpultsatua.
- Familia-unitateko kideak errolatuak egotearen ziurtagiria, tituluan ageri diren kide guztiek osatua egon behar duena (Udalak berak emango du, eskabidea aurkezten den unean).

* Pertsona titularrak obligatuak daude familia ugariaren izaera galtzea dakarren gertakariaren berri ematera. Iraungitzearen kausa gertatu den hilabetearen hurrengo amaitu baino lehen egin behar da berri-emate hori. Izaera hori galtzeak berekin ekarriko du aitortutako salbuespena iraungitzea, galtzea gertatu deneko zerga-periodoaren hurrengotik aurrera.

c.4) Santzioen araubidea: haietarako eskubiderik ez duten onurez gozatzearen egiten den edozein ezkutatze, faltsutze edo iruzur santzionatu egingo da, Zuzenbide Publiko Lokaleko Tributuak eta Bestelako Diru-sarrerak Kudeatzeko, Kobratzeko eta Ikuskatzeko Ordenantza Orokorrean ezarritako infrakzio eta santzioen erregimenean xedaturikoaren arabera.

* Los sujetos pasivos del IBI Urbana que tengan reconocida la condición de Familia Numerosa en la fecha de devengo correspondiente al periodo impositivo de aplicación, deberán presentar la siguiente documentación:

- Solicitud del interesado, en la que se identifique tanto el solicitante (nombre, apellidos, DNI) como el bien inmueble objeto de la solicitud de bonificación.
- Fotocopia compulsada del título Oficial de Familia Numerosa expedido por la Diputación Foral de Gipuzkoa.
- Certificado de empadronamiento, de los miembros de la unidad familiar, que debe estar conformado por todos los miembros que figuren en el Título (se facilitará por el propio Ayuntamiento en el momento de presentación de la solicitud).

* Las personas titulares estarán obligadas a comunicar el hecho que dé lugar a la pérdida de la condición de familia numerosa. Dicha comunicación deberá llevarse a cabo antes de que finalice el mes siguiente a aquel en que se produjo la causa de la extinción. La pérdida de dicha condición conllevará la extinción de la exención reconocida a partir del periodo impositivo siguiente a aquél en que se hubiera producido.

c.4) Régimen sancionador: Cualquier ocultación, falsedad o defraudación por disfrute de beneficios a los que no tengan derecho, serán sancionados conforme a lo dispuesto en el régimen de infracción y sanciones establecido en la Ordenanza General de Gestión, Recaudación e Inspección de los Tributos y otros Ingresos de Derecho Publico locales.



- d) Zergaren Kuota osoaren %50eko hoberia Eusko Jaurlaritzaren 2002ko abenduaren 30eko 316/2002 Dekretu bidez etxebizitza hutsei buruz onartutako Bizigune programaren barruan erabilera- lagapena duten ondasun higiezinak dagokienez.
- e) Zergaren Kuota osoaren %20eko hoberia eguzki energiaren aprobetxamendu termiko edo elektrikorako sistemak instalatuta dituzten ondasun higiezinarentarako. Hobari hori aplikatuko bada, beroa sortzeko instalazioek Administrazio eskudunak homologatutako kolektoreak eduki behar dituzte. Gainera, aprobetxamendu termikorako sistemaren instalazioen kasuan, hoberia 2006ko irailaren 29a baino lehen eraikuntza-lizentzia zuten ondasun higiezinak bakarrik emango zaie.

Hoberia behin bakarrik eta 3 urterako emango da.

3.- Hobariak ezingo dira metatu, eta ehunetik handiena aitortzen duena aplikatuko da.

11. Artikulua.- Errekarguak.

1.- Ondasun higiezinak etxebizitza erabilera dutenean, eta subjektu pasiboaren edo hirugarrenen ohiko egoitza ez direnean –hirugarrenen kasuan errentamenduz edo lagapen bidez–, kuota likidoaren gainean %50 errekarua ezartzea proposatzen da. Errekargua zerga honen subjektu pasiboari exijituko zaie, haren sortzapena zerga sortzen den une berean gertatuko da, eta urtero likidatuko da, kuotarekin batera.

2. Errekargu hau aplikatzearen ondorioetarako, horretarako egingo den udal xedapenean ezarritako terminoak, edukiei eta irispideei jarraituko zaie.

d) Una bonificación del 50% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles cuyo uso sea objeto de cesión en el marco del “Programa de Vivienda Vacía” regulado por el Decreto del Gobierno Vasco 316/2002, de 30 de diciembre.

e) Una bonificación del 20% de la cuota íntegra del impuesto para los bienes inmuebles en los que se hayan instalado sistemas para el aprovechamiento térmico o eléctrico de la energía proveniente del sol. La aplicación de esta bonificación estará condicionada a que las instalaciones para producción de calor incluyan colectores que dispongan de la correspondiente homologación por la Administración competente. Además, en los casos de instalaciones de sistemas para el aprovechamiento térmico, la bonificación se concederá exclusivamente sobre aquellos bienes inmuebles que dispongan de licencia de construcción con fecha anterior al 29 de septiembre de 2006.

La bonificación se concederá por un a sola vez y por un periodo de 3 años.

3. Las bonificaciones no tendrán carácter acumulativo, aplicándose la que reconozca el porcentaje mayor.

Artículo 11.- Recargos.

1.- Sobre los bienes inmuebles de uso residencial que no constituyan la residencia habitual del sujeto pasivo o de terceros por arrendamiento o cesión de su uso, se propone establecer un recargo del 50% de la cuota líquida del Impuesto. Dicho recargo, que se exigirá a los sujetos pasivos de este tributo, se devengará en el mismo momento que el impuesto sobre el que se aplica y se liquidará anualmente, conjuntamente con la cuota.

2. A efectos de la aplicación del presente recargo, se estará a los términos, contenido y alcance que se establezca a través de la correspondiente disposición municipal que se elabore al efecto.

AMAIERAKO XEDAPENA

Karga-tasak 1989(e)ko urriaren 4an izan ziren behin betiko ezarriak eta galdatuak. Ordenantza hau, behin betiko izaeraz onetsi zuen Udalbatzarrak 1999(e)ko urriaren 22(e)an egindako osoko bilkuran, 2000(e)ko urtarrilaren 1etik aurrera sartu zen indarrean, eta bere azken aldaketa 2019(e)ko azaroaren 4(e)an onetsi zen, 2020(e)ko urtarrilaren 1ean sartu da indarrean eta horrela segituko du harik eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte.

Ordenantza honek jasotzen dituen xedapenen artean, badira beste administrazio publiko batzuek beren eskumenak gauzatuz onetsitakoak, eta zuzenean eta nahitaez aplikatu beharrekoak. Beraz, alderdi horien gainean onesten diren arau-aldaketak (batik bat zenbatekoei eta koefizienteei dagozkienak) automatikoki jasoko dira, eta berariaz onesteko erabakia hartu beharrik gabe eguneratuko dira Ordenantza honetan.

KONTUHARTZAILEAK

DISPOSICIÓN FINAL

Los tipos de gravamen se establecieron y exigieron definitivamente el día 4 de octubre de 1989, la presente Ordenanza quedó aprobada definitivamente por el Pleno de la Corporación celebrado el día 22 de octubre de 1999, entró en vigor el 1 de enero de 2000, y su última modificación aprobada el 4 de Noviembre de 2019 entra en vigor el 1 de enero de 2020 y así seguirá hasta que se acuerde su modificación o derogación.

La presente Ordenanza recoge disposiciones aprobadas por otras Administraciones Públicas en el ejercicio de sus competencias y que resultan de aplicación directa y obligatoria, por tanto, las modificaciones normativas que se aprueben sobre dichos aspectos (especialmente importes y coeficientes) serán recogidas automáticamente, actualizando esta Ordenanza sin necesidad de adoptar acuerdo aprobatorio específico.

ALKATEAK

IDAZKARIA



LASARTE-ORIA
UDALA - AYUNTAMIENTO